

MILA URTEKO ZERRENDIA JAPONIARRAK



Nagore Irazustabarrena

Uranga

@irazustabarrena

Japonia, 966. urte inguruan. Sei Shonagon idazle, poeta eta gortesaua jaio zen. Fujiwara no Teishi (Sadako izenez ere ezaguna) Heian aroko enperatrizaren zerbitzura jardun zuen. Ezer gutxi dakigu emakume horren bizitzari buruz, bere idatziez gain. *Burkoaren liburua* bilduma idazteagatik da bereziki ezaguna. Lan horretan egileak enperatrizaren eta gortearen berri jaso zuen. Hainbat poema ere bildu zituen, baina, bereziki, zerrendak nabarmentzen dira liburuan; batzuk bitxiak dira oso eta beste batzuek ez dute gaurkotasunik galdu.

Zerrenda horien zerrendak berak ez du ezer bazterrean uzteko: bihotz-taupadak azkartzen dizkiguten gauzak; konparatu ezin diren gauzak; zikin sentiarazten gaituzten gauzak; mugitzen diren gauzak; finak izan behar luketen gauzak; boterea galdu duten gauzak; ikusteko edo entzuteko grina eragiten diguten gauzak; urrun egon arren hurbil dauden gauzak; gauza arraroak...

Hona hemen gauza arraroen azken zerrenda horretako ale batzuk: aitagina-rrerak suhia laudatzea eta, era berean amagarreberak erraina estimatzea; nagusiaz gaizki esaka ez dabilen mirabea; berezitasunik ez duen pertsona.

Lotsarazten gaituzten gauzen zerrendak argi uzten du gauza batzuk ez direla

batere aldatu mila urtean: norbaiti buruz hitz egitea, entzun gaitzakeela konaturatu gabe; gurasoek, haien haur itsusia maitagarria dela sinistuta, haurrak esaten duen guztia errepikatzea, haren ahotsa imitatuz; gizon batek bereziki onak ez diren bere poemak errezitatzea eta jaso dituen laudorioez jardutea.

Horrez gain, gauza dotoreak ere bildu zituen gortesauak beste zerrenda batean: txaleko more baten gainean beroki zuria eramatea; liana xarabea izotzarekin nahastua eta zilarrezko katilu berri batean zerbitzatu; ahateen arrautzak; glizinak loretan; elurrak estalitako arnondo loreak; haur eder bat marrubiak jaten.

Burkoaren liburuko beste zerrenda batzuk bihurriagoak dira, hala nola, iragan loriatsua izan arren gaur egun alferrikakoak diren gauzak: ikusmen kaskarreko margolaria; gustu onez erakitako etxe bateko lorategiko zuhaitzak, suak suntsitu ondoren; inork zaintzen ez duen eta alga geruza lodi bat daukan urmaela.

Amaitzeko, Sei Shonagonen poeta izaera biltzen duen zerrenda ederra, musika duten isiltasunaren gauzak: euriak garbitu berri duen ezkila-loreen saila; egurrezko kutxa ñimiñoak; ibaitik hurbil, amesten duen hari sonata bat



Sei Shonagon X-XI. mendeko poeta eta idazle japoniarra elurrari begira irudikatua. Grabatua Utagawa Yoshitora ilustratzaileak egin zuen 1872an.

idazten dion emakumea, elurra mara-mara botatzea; txorien hilerriak; intsentsu-makilan kea. Eta, azkenik, magnolien heriotza. Magnolia horietan, argia anbar kolorekoa den orduetan, emakume talde bat ikus daiteke pabana dantzatzen. ■



REX FEATURES

Publikoak ez du beti arrazoi

1913ko maiatzaren 29an Igor Stravinskiren (1882-1971) *Udaberriaren sagaratzea* balleta estrainatu zen Parisen, Vaslav Nijinskiren koreografiarekin. Obrak dontzeila baten bahiketa eta sakrifizioa kontatzen du; dontzeilak hil arte egin behar du dantzan.

Publikoa lehen ekitaldian, oberturan bertan, hasi omen zen txistuka eta ager-

tokira objektuak jaurtitzen, besteak beste laranja. Estreinaldia bertan behera geratu zen. Zenbait iturriren arabera, liskarrak 40 atxilotu eragin zituen, baita duela bat ere.

Egun, *Udaberriaren sagaratzea* musika garaikideko obra gailentzat eta XX. mendeko musika abangoardiaren oinarritzat jotzen da. ■